





Urdaibaiko teknikariek, Olatz. Datu guztiak bildu ondoren, hondartza guztia berreskuratzeko egitasmoa prestatu zuten.

Eta nondik hasi ziren?



1999. urtean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuak lanak hasi zituen hondartzako leku txiki batean.



Leku estrategikoetan zume-adaxka lehorrak jarri zituzten hesiak osatuz, haizeak zerraman harea biltzeko.

Zergatik?



Haizeak harea garraiatzen duelako, eta, adaxkekin topo egiten duenean, haien oinean piltzen delako. Horrela hasten da duna pixkanaka hazten.

Eta bilgailurik gabe duna ez da hazten?



Bai, Olatz, baina oso astiro. Harea-harrapatzaileek dunari laguntzen diote prozesua azkarragoa izan dadin, prozesu naturalak simulatuz. Hondartza zegoen moduan egonda, ez zegoen denbora alferrik galtzerik.

Begira, aitona, han jendea dago zerbait landatzen.



Kaixo, gazte, zer ari zarete landatzen?

Harea finkatzeko landareak jartzen ari gara. Dunetako berezko landareak dira, eta duna-sistemaren ohiko erliebea eratzen dute. Horiek landatuta, prozesu naturala bizkortzen dugu.



Aurreko urteetako landaketei esker, landareak asentatu dira, eta, orain, duna-sistema natural batean baleude bezala jokatzten dute.



Begira, aitona, landare hau desberdina da.

Landare honi itsas ezkerre deritzo, eta ez du inork landatu. Beste hainbat duna-landareren antzera, duna finkatuz doan heinean etortzen dira.



Gainera, duela 50 urte desagertutako landareak etorri dira. Esaterako, itsas lilipa, dunetako esne bedarra, eta itsas armika.

Landare bitxiak dira.



Bitxiak dira babesik gabeko eremuan bizi direlako, hareak eta itsasoko gatzak kolpatuta eta lurzoru pobre eta lehorretan. Landare trebeak dira.

Beraz, ezin dira erauzi, ezta?

Ez, landareak kentzen baditugu duna desagertu egingo da.



Ikusi duzu, Olatz, pertsona hauen lanari esker hondartza ederragoaz eta handiagoaz goza dezakegu.

Horregatik, haiek esandakoa errespetatu behar dugu.



Begira, Olatz, zein leku handia dagoen eguzkia hartzeko.

Bai, dunari esker, nahikoa leku dago, itsasoak gora egiten badu ere.